

Historiaurreko aurkikuntza berriak Txoritokietan (Erreenteria)

Jesus Tapia eta Manuel Ceberio



Aitzbitarteko kobazuloak. Argazkiak: Jesús Tapia

Erreenterian Historiaurreko aztarnen ezagutza aspaldiko kontua da, Gipuzkoako lehenbiziko indusketa arkeologikoa Aitzbitarteko (Landarbaso) kobazuloetan egin baitzen 1892an. Orain arte ezagutzen ditugun Historiaurreko aztarnak, ordea, ez dira oso ugariak, eta bi multzotan banatu daitezke:

- 1) kobazuloak, bizileku eta ehortze-leku bezala erabili direnak. Erreenterian ezagutzen direnak Aitzbitarte II, III, IV eta V dira.
- 2) megalitoak, hildakoak (gorpuak edo errautsak) gordetzeko, edo haien omenez eraikiak. Erreenterian ezagutzen direnak Mariola, Langagorri, Aitzetako Txabala, Txoritokieta, eta Berrozpin I, II eta III dira.

Kobazuloak bizileku gisa erabili dira ia Historiaurre osoan zehar, Aitzbitarteko kasuan Ka 32.000-1.500 urte tartean, eta ez da arraroa haitzuloetan giza gorpuzkinak ere aurkitzea, gehien bat Neolito-Brontze Arokoak. Megalitoak, ordea, Historiaurreko azken hilobi-monumentuak dira, denboran zehar aldatzen direnak errito eta ohitura desberdinen arabera.

Orain dela urte batzuetatik hona aire zabaleko bizilekuak ere aurkitzen hasi gara. Gipuzkoako ekialdean haitzuloak ez dira ugariak kareharrizko terreno gutxi dagoelako, baina historiaurreko taldeak ez ziren haitzuloetan bakarrik bizi izaten. Badakigu Ka 32.000-5.000 urte tartean Aitzbitarten bizi ziren ehiztari-taldeak lurraldean zehar mugitzen zirela, eta beraz, leku honetaz gain, beste toki askotan ere egingo zituz-

tela kanpamenduak, bai kobazuloetan, bai aire zabalean. Baliteke Ametzagainan (Donostia) aire zabalean aurkitutako aztarnategia kanpamendu hauetako bat izatea, eta baliteke beste asko oraindik aurkitu gabeak izatea. Geroago, nekazari eta abeltzain bihurtu ondoren, gizataldeek paisaia baratzak, soroak eta zelaiak landu zituzten, eta horiek zaintzeko lurraldean finkatu ziren. Bizimodu egonkor horren ondorioz, hildakoak leku berdinean gordetzeko beharra sortu zen, haitzuloetan, edo haitzulorik ez dagoenean, trikuharrietan.

topatzea ez dela batere erraza. Hain zuzen ere, Gipuzkoan 250 megalitotik gora baldin badago, ezagutzen ditugun aire zabaleko bizilekuak ez dira bostera iristen. Halako aztarnategiak aurkitzea zailtasun handiko lana da, aztarnak ikustea oso zaila baita, baso, landare eta eraikuntzen artean.


Orain arte lortutako datu berrien artean, Mariolako harkutxa aurkitzea eta Berrozpingo parkean aztarna multzo bat jasotzea aipatu ditzakegu. Mariola P.M. Soraluçek aurkitu zuen 1919an, Astigarraga eta Erreteriarren arteko mugan, baina bere ustez *cromlech* edo mairubaratza zena gaur arte ahaztua izan da. 2008 eta 2009an lekua induskatu genuen historiaurreko egitura zela egiaztatuz, nahiz eta mairubaratza ez izan, harkutxa baizik. Bestaldetik, Berrozpinen sukarrizko piezak azaltzen zirela jakin genuen Antxon Díez-i esker, eta miaketa sistematikoak egin ondoren 100 piezatik gora jaso ditugu.



Aitzetako Txabala trikuharria. Argazkia: Manu Ceberio

Baliteke Historiaurrean trikuharriak eta gainontzeko megalitoak mugari gisa erabiliak izatea, arbaso eta senideen hilobien bitartez taldearen lur-jabetza adierazteko. Megalito askoren kokapena artzain-bideekin ere lotzen da, mendilepo altuetan aurkitzen direnean. Erreteriariko kasuan, ezagutzen ditugun megalitoak altuera gutxiko mendixka eta lepoetan aurkitzen dira, horien artean mota desberdineko monumentuak (trikuharriak, harkutxak, eta monolito bat) Neolito eta Brontze Aroan zehar eraikiak izan direnak (K. a. 5.000-1.200 urte tartean). Hain denbora luzez leku berean mota desberdineko monumentuak eraiki izateak, inguruan biziguneak aurkitu ditzakegula esaten digu. Esan bezala, Aitzbitarteko kobazuloetan aldi horretako aztarnak jaso izan dira, baina ez du ematen bizileku egonkor baten adierazgarriak direnik, eta beraz haitzulotik kanpo bilatzera behartuta gaude.

Datu hauek aztertuz, orain dela lau urte hasi genituen gure ikerketak Erreteria eta Txoritokieta-Santiomendiko inguruan. Gure helburu nagusia megalitoen inguruko bizilekuak aurkitzea da, eta horretarako ahal dugun informazio gehiena lortzen saiatu gara. Badakigu aire zabaleko biziguneak



A. Díezek Berrozpinen aurkitutako pieza batzuk. Marrazkiak: Jesús Tapia

Aurkitutako materialak Berrozpingo zelai osoan zehar banatzen dira eta piezen ezaugarriek (harria lantzeko teknikak, piezen diseinua) bertako trikuharrien garaikoak izan daitezkeela adierazten dute, Neolito-Brontze Arokoak. Pieza-multzoa sukarrizko tresnez osatua dago soilik eta momentuz ez dugu zeramika edo bestelako materialik aurkitu. Harrizko tresnen artean, marruskak, karraskak eta dentikulatuak aurkitzen ditugu bestelako produktu arruntekin batera (printzak edo ezpalak). Piezak ez dira bakarrik

megalitoen inguruan azaltzen, esparru zabal batean baizik, eta ez du ematen, beraz, megalitoen suntsipenetik datozenik. Pieza askoren diseinua ikusita, eguneroko lan arruntak betetzeko egin direla esan genezake. Ezaugarri guzti horiek kontuan hartuz, Berrozpin Neolito-Brontze Aroan okupatua izango zen, ez bakarrik hilerri bezala, baizik eta bizileku bezala. Tamalez, oraindik ez dugu txabola edo etxebizitzarik aurkitu, eta aztarnen kopurua ez da nahikoa bizigune egonkor bati buruz hitz egiteko.

Azkeneko kanpainan (2011) kata bat hasi dugu Berrozpinen, lur azpian piezak edo bestelako aztarnak aurkitu nahian. Hasieran 2x2 metroko laukia industean, harrizko blokez egindako egitura bat azaldu zen, eta hura aztertu ahal izateko laukia 14 metro karraturaino zabaldu dugu. Orain arte ikusi dugunez, egiturak trikuharri baten tumulua ematen du, hilobia estaltzeko lur eta harriz osatutako multzoa, gainean lauza handi bat daukala. Oraingo zehaztasun guztiz ez bada ere, trikuharri berri bat izan daitekeela esan dezakegu, eta datorren kanpainetan gai hau argitzen saiatuko gara.



Berrozpinen aurkitutako harrizko egitura. Argazkia: Manu Ceberio

Bitartean, datu berri hauek oraindik nahikoak ez badira, gure helburua betetzeko bide onean gabiltzala adierazten dute. Pixkanaka-pixkanaka jasotzen ari garen informazioa gero eta ugariagoa da, eta hilobi-monumentuen eta inguruko piezen arteko erlazioa aztertu ahal izango dugu datozen kanpainetan.